2016-XI-18
Número **507.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## MST-ren kriminalizazioaren aurka

ELAk askotan salatu izan du publikoki maiatzean Brasilen Dilma Rousseff kargutik kentzeko indar kontserbadoreek –komunikabide handien eta kapitalaren laguntzaz– eman zuten kolpea. Eta, noski, kolpea salatzearekin batera gure elkartasuna adierazi Brasilgo langileei, mugimendu sindikalari eta herriari, gobernu ilegitimoaren aurka eta demokrazia berrezartze aldera mobilizatzen eta borrokatzen ari diren honetan.

Zoritxarrez gure aurreikuspen okerrenak bete dira, eta Michel Temerren gobernua politika errepresibo krudela garatzen ari da; eta, begizjota dituen erakundeen artean, bereziki aipagarria da Brasilgo Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST) kriminalizatzeko daraman politika.

Brasilgo nekazarien mugimendua, zeinen oinarri nagusia MST den, eredugarria da bere duintasuna eta erresistentzia gaitasuna medio. Latinoamerikako herrialde hau da munduan desberdintasun handiena dagoenetako bat, izan ere, lurra oso jabe gutxiren esku izan baita betidanik. MSTk urte asko darama borrokan lurraren bidezko banaketaren eta nekazaritza erreformaren alde, eta jabegoak –landa eremuan zein hirietan– funtzio soziala izan dezan.

ELAk Temer Brasilgo presidente izatera eraman zuen estatu-kolpea salatu egin zuen. Gobernu hau orain gizarte-mugimendu guztiak kriminalizatzeko politika ezartzen ari da, eta jo-puntuan jarri du bereziki MST: Azaroaren 4an polizia Guararemako Florestan Fernandes eskolan indarrez sartu zen, baimen judizialik gabe eta tiroka. Operazio polizial honen ondorioz bi lagun atxilotu zituzten eta pertsona bat zauritu.

Horregatik, ELAk brasildar poliziaren neurrigabeko ekintza bortitza gaitzetsi eta arbuiatu du, eta Temerren gobernuari galdegin dio bere jarrera alda dezala; bere herrialdeko gizarte-mugimenduei zor zaien errespetua agertu behar die. Gainera, MSTrekiko gure elkartasuna adierazi eta giza-eskubideen eta berdintasunaren alde egiten duen lana goraipatu nahi dugu. Gora MST!

**1.200 EUROTIK GORA**

## ELA denuncia que los presupuestos de Navarra mantienen 3,5 millones dirigidos a financiar de forma encubierta a UGT, CCOO y la patronal

# FINANCIACIÓN ENCUBIERTA A UGT, CCOO Y PATRONAL

ELA y LAB realizaron el 16 de noviembre una comparecencia pública en Iruñea para denunciar que el Gobierno Foral de Navarra pretende seguir financiando a UGT y CCOO vía presupuestos públicos. Una actitud que Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, considera que tiene un evidente objetivo: favorecer el modelo sindical de CCOO y UGT.

**-¿En que se basa la denuncia que nuestro sindicato –junto a LAB– hizo pública el miércoles pasado?**

-Tras analizar la propuesta de presupuestos del Gobierno de Navarra para el 2017, se puede comprobar que se mantienen 3,5 millones dirigidos a financiar de forma encubierta a UGT, CCOO y la patronal. En el proyecto de presupuestos, tal y como hemos exigido reiteradamente, desaparecen los Convenios directos con UGT y CCOO, aunque no así con la patronal, para la que se mantienen convenios específicos por 800.000 euros. No podemos olvidar que estos convenios eran auténticos mecanismos de subcontratación a dedo de políticas que deben ser llevadas a cabo por la propia Administración.



**En la imagen Mitxel Lakuntza –coordinador de ELA en Navarra– e Igor Arroyo –responsable de LAB en Navarra–. Ambos dirigentes sindicales comparecieron el 15 de noviembre para denunciar que en los presupuestos de Navarra del 2017 hay diferentes partidas para financiar a UGT, CCOO y CEN.**

Sin embargo, la eliminación de estos convenios no oculta que en el proyecto de presupuestos hay partidas importantes –algunas de las cuales se incrementan notablemente– que, a pesar de que en su denominación no aparece expresamente que estén destinadas a esos sindicatos (o a la patronal), sí lo están, en su totalidad o en parte.

**-Es decir, el Gobierno de Navarra pretende seguir financiando vía presupuestos públicos tanto a UGT como a CCOO…**

-Así es. A los datos objetivos me remito. Es muy grave que un Gobierno favorezca un modelo sindical determinado financiándolo con los presupuestos públicos. En ELA consideramos lamentables las decisiones políticas que se están tomando en temas como la formación para el empleo, la orientación laboral o la salud laboral. No podemos tolerar que se tomen estas

*(Sigue en la página 2)*

# "ZER EGIN INDARKERIA SEXISTAREN AURREAN?"

**ELAk formazio jardunaldia antolatu du azaroaren 25erako, ostirala, Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta. Ekitaldia Euskal Herriko Unibertsitateak Abandoibarran (Bilbo) duen Paraninfoan izango da, 10:30tan. Ondoren kontzentrazioa bat egingo da.**

**'*Indarkeria sexistaren aurrean, zer?*' Hori izango da mahai-inguruan parte hartuko duten hiru lagunei –Laura Gomez Hernandez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun saileko arduradun ohia, Maria Viadero Acha, Mugarik Gabe gobernuz kanpoko erakundeko kidea, eta Itziar Gandarias Goikoetxea, Mujeres del Mundo eta Mundu Martxako militantea– egingo zaien galdera. Saioa ELAko berdintasun arduradunak –Jone Bengoetxea– zuzenduko du.**

**Arratsaldean, berriz, ELAk bat egiten du mugimendu feministak deitutako deialdiekin. Hauek dira nagusiak: Baiona (18:30, Herriko Etxea), Bilbo (20:00, Arriaga Plaza), Donostia (19:00, Boulevard), Gasteiz (19:00, Andra Mari Zuria Plaza) eta Iruñea (20:00, Gaztelu Enparantza).**

*ELA celebrará el 25 de noviembre –Día Internacional contra la Violencia Sexista– una jornada de formación (10:30, Paraninfo de la UPV en Bilbao)*






materias como vías para financiar a UGT y CCOO, además de la patronal. La orientación laboral debe desarrollarse a través de los servicios públicos, lo que significa acabar con la política de subcontratación y subvenciones a entidades privadas. En cuanto al desarrollo de un sistema de formación para el empleo, éste debe pivotar sobre los centros de formación profesional y centros propios del Servicio Navarro de Empleo, sin que la formación sea impartida o subcontratada a la patronal y a los sindicatos. Por último, los programas de salud laboral, así como los estudios sobre la realidad social, deben ser desarrollados directamente por la administración pública.

**-Todavía estamos a tiempo de parar esta financiación encubierta…**

-Sí, por eso nuestra exigencia es clara: que se impida el mantenimiento de programas que responden a la política clientelar del régimen anterior de Navarra, programas que se utilizaban para financiar a la patronal, a UGT y a CCOO. Para eso, inevitablemente, los partidos políticos no pueden permitir que los prepuestos salgan adelante tal y como se han presentado.

Necesitamos que se introduzcan en el trámite parlamentario los cambios necesarios para garantizar que los programas de orientación laboral, salud laboral y estudios sobre la realidad social se desarrollen directamente por los servicios públicos. Es incompatible decir que se es un Gobierno del cambio y seguir con las mismas políticas de financiación públicas que el anterior Gobierno.

### ¿CÓMO FINANCIA EL GOBIERNO DE NAVARRA A UGT, CCOO Y PATRONAL?

Son varios los programas mediante los cuales se financia a sindicatos (UGT y CCOO) y patronal (CEN) vía presupuestos del 2017. En el proyecto de presupuestos hay partidas importantes que, a pesar de que en su denominación no aparece expresamente que estén destinadas a esos sindicatos (o a la patronal), sí lo están (en su totalidad o en parte). Entre estas partidas podemos señalar:

**Programa *Asistencia para programas de orientación. Conferencia Sectorial***, de 1.700.000 euros, que es la misma cantidad que se destinaba a Convenios con UGT y CCOO en 2016. Sigue abierta la puerta a que esas organizaciones reciban una parte indeterminada de esa cantidad económica.

**El programa de *Proyectos de Prevención de Riesgos Laborales***, dotado con 1.100.000 euros, 1.025.000 más que +en 2016. Esta partida va a ir dirigida a los sindicatos, lo cual es inaceptable. Para ELA y LAB eso va en la línea de lo señalado por el Gobierno en su Plan de Empleo, que indica la necesidad de impulsar el diálogo social en Salud Laboral y estudiar la recuperación de figuras como el delegado de prevención: "en el marco del diálogo social se valorará la recuperación para los próximos años de proyectos de interés en materia de seguridad y salud laboral propuestos por organizaciones sindicales y empresariales".

### "HAY QUE ABANDONAR EL MODELO DE SUBCONTRATACIÓN Y APOSTAR POR LO PÚBLICO"

Poco después de la rueda de prensa de ELA y LAB el Gobierno de Navarra hizo pública una nota de prensa. En la misma justificaba que no se puede excluir a estas organizaciones –UGT y CCOO– de un sistema de "concurrencia competitiva". Mitxel Lakuntza, además de reafirmarse en la denuncia hecha la víspera, emplaza al Gobierno de Navarra a que afronte el debate real. "El debate que importa es el siguiente: si estos servicios deben prestarse por medio de los servicios públicos o deben subcontratarse como hasta ahora. Lo que criticamos es precisamente la subcontratación de actividades por medio de concurso público. Que no se haga por convenio es una buena noticia. Ahora bien, el cambio cualitativo consiste en que sean los servicios públicos los que desarrollen estas actividades".

"Es evidente que se necesitan más recursos públicos para las políticas de empleo, formación, orientación laboral o salud laboral, pero es difícilmente justificable que la opción sea subcontratar esos servicios en vez de potenciar el Servicio Navarro de Empleo o el INSL. Que en vez de ello se prefiera poner el dinero de los impuestos en manos de academias, chiringuitos o de UGT, CCOO y CEN supone la continuación de un modelo mayormente privatizado".

## Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia decidirán en breve nuevas movilizaciones en el sector, sin descartarse jornadas de huelga durante la Navidad

# "LAS PATRONALES DE LAS RESIDENCIAS SE RESISTEN A TOCAR SUS ENORMES BENEFICIOS"



Tras la última reunión con las distintas patronales del sector de Residencias de Bizkaia, en la que se negaron a realizar una propuesta de convenio que permita avanzar en la solución de un conflicto que ha supuesto la convocatoria de más de 50 jornadas de huelga hasta el momento, todo apunta a un recrudecimiento de las movilizaciones. En este sentido, ELA llevará a cabo en los próximos días asambleas en los centros de trabajo sin que se descarten nuevas jornadas de huelga en el periodo navideño.

En la reunión celebrada el 15 de noviembre las patronales no respondieron a las reivindicaciones planteadas por ELA y volvieron a subrayar que la clave de la solución está en la Diputación de Bizkaia, que financia en un 70% el servicio de las residencias concertadas. Al igual que en la anterior reunión, se limitaron a señalar que corresponde a la Diputación mejorar la dotación presupuestaria, y que la pretensión de la Diputación de recortar en un 2,5% el precio-plaza de las casi 3.000 camas concertadas les imposibilita realizar una propuesta que satisfaga las reivindicaciones del colectivo. ELA critica esta posición y exige a las patronales una mayor implicación en la solución del conflicto, ya que con las actuales aportaciones de la Diputación tienen margen para hacer frente a las reivindicaciones de las trabajadoras.

Tras la decepcionante reunión, ELA ha decidido convocar asambleas en las distintas residencias para decidir actuaciones futuras que permitan desbloquear el conflicto, así como seguir socializando el mismo con reuniones con la asociación de familiares y diversos agentes sociales.

### LA DIPUTACIÓN SIGUE SIN ASUMIR SU RESPONSABILIDAD EN EL CONFLICTO

Y mientras las patronales del sector –Gesca, Lares y Elbe–, siguen instaladas en la irresponsabilidad y la no negociación, algo similar ocurre con la Diputación Foral de Bizkaia, desaparecida en un conflicto que se ha traducido en 51 jornadas de huelga en un servicio público básico para la sociedad. En este sentido, Gaizka Miguel y Soraya García, responsables de ELA en el sector, recuerdan que han solicitado dos reuniones con la Diputada de Bienestar Social, Isabel Sánchez Robles, sin que hayan recibido contestación alguna.

Asimismo, ELA insiste en el hecho de que en contra de lo manifestado por la Diputada de Acción Social, la Diputación, a través de los pliegos de concertación de camas que próximamente debe licitar y donde adjudicará una partida presupuestaria muy importante, puede modificar al alza los ratios, es decir, el personal mínimo que atiende a los 11.000 residentes de centros geriátricos de Bizkaia.

El Decreto del Gobierno Vasco –que todas las partes reconocen que es obsoleto e insuficiente– es de mínimos y puede mejorarse, como ya se realizo en Gipuzkoa sin incumplir la ley. Es cuestión, lisa y llanamente, de voluntad política y de partida presupuestaria. Lo ilegal y la prevaricación sería marcar en los pliegos unos ratios por debajo del mínimo marcado por el Decreto del Gobierno Vasco, en ningún caso incrementarlos.

Por todo ello, ELA exige a la Diputación Foral de Bizkaia que deje de mirar hacia otro lado, asuma su responsabilidad y abogue de una vez por todas la mejora de las condiciones laborales de las trabajadoras de residencias y la calidad asistencial de las personas mayores.

Finalmente, ELA exige a la Diputación que se ponga del lado de las y los más débiles y deje de amparar a unas patronales a las que, por poner sólo un ejemplo, no ha minorado el precio plaza que paga a esos centros durante las jornadas de huelga. Así las cosas, las patronales están ganando todavía más dinero con las jornadas de huelga sin importarles su incidencia en la calidad del servicio que se ofrece.

IRITZIA / OPINIÓN

# UNAI REMENTERIA, ENPRESARIEN ADISKIDE MINA



Unai Rementeria Bizkaiko Diputatu Nagusia CEBEK Bizkaiko ugazaba elkarteak antolatutako ekitaldi batean ELAri buruz honela mintzatu da: "Bere arduradun nagusia entzuten dudan aldioro, gobernu neoliberalez, gizartebabesaz, fiskalitateaz, autodeterminazioaz, baita Abiadura Handiko Trenaz ere –eta ez prezeski honen alde– neure buruari galdetzen diot ez ote lukeen alderdi politiko bat antolatu eta hauteskundeetan parte hartu beharko".

Esaldi honek makina bat gogoeta eragin dezake, baina bi aipatuko ditugu. Lehena: Rementeria jaunak gaioi buruzko solasa entzuten duenean zergatik ez ote dio patronalari gauza bera eskatzen, hots, alderdi politiko bat sor dezala? Bigarrena: zer dela eta goraipatzen du patronala, kontrako iritzia emateko bada ere ELAk aipatzen dituen gai berberak erabiltzen dituelarik?

Erantzuna argia da: Rementeria jauna sumindu egiten da herri honetako sindikatu nagusiak esaten eta egiten duena ikusita. Alderantziz, baina, maite du patronalaren diskurtsoa eta jarduna. Hau normala izan daiteke. Haatik, ez da hain normala argudio eta politikak eztabaidatu ordez oso demokratikoa ez den jarrera hartu eta gaiari amaiera eman nahi izatea. Zer da ELA horretaz iritzia emateko? Bada, besterik gabe gizarte-eredu jakin baten alde dagoen sindikatu bat, eta horrenbestez enplegua, gizarte-politika, fiskalitatea eta beste hainbat gai juzkatu nahi duen erakundea.

Bizkaiko Diputatu Nagusia ernegatuta dago politika batzuk neoliberalak edo Thatcherren eskolakoak direla esaten dugulako. Zoritxarrez, ez du ispiluan bere isla ikusi nahi. Har ditzagun, beraz, bi gai: fiskalitatea eta Bizkaiko zahar-etxeen gatazka.

Fiskalitateari dagokionez, Rementeria jaunak ondo asko daki euskal ogasunak Ekonomi Itunaz baliatu direla errenta altuei eta kapitalari pribilegiozko tratua emateko (berak horixe esan zuen Madrilen emandako hitzaldi batean). Badaki ere bere Aldundiak iruzur fiskalari ez diola modu egokian aurre egiten. Erreparatu, bestela, erakunde honek (Araba eta Gipuzkoako aldundiekin batera) zer nolako erantzuna eman zion EHUk egindako txosten bati; beronetan esaten da iruzur fiskala medio EAEn urtean 3.200 milioi euro ez direla ordaintzen, eta azken urteetan arazoa areagotu egin dela. Zer esan zuten Aldundiek? Dena ondo egiten dutela, eta ez zeukatela aldatzeko asmorik.

Foru Aldundiek ezartzen duten zerga-politikaren ondorioz, presio fiskala EAEn Europako batez besteko maila baino askoz apalagoa da. Zehazki, urtean ia 6.000 milioi euro gutxiago biltzen dira, hots, ia ia Eusko Jaurlaritzak osasungintzara eta hezkuntzara bideratzen duen kopurua.

Gainera, Rementeriak berak bazuen ugazaben belarriak gozatzeko beste albiste bat: Zehaztasun handirik gabeko funts batzutan dirua jartzen zutenentzat –2.000 eurotik gora– zergarintze gehiago izango zirela agindu zuen. Noski, ondare handiena dutenentzat kenkariak eskuzabalagoak izango dira. Hori bai dela politika berria: kapitalari aringarri fiskalak eskaintzea. Ez dakit zergatik haserretzen diren zerga-politika hori neoliberala dela esaten denean.

Zahar-etxeak. Margaret Thatcher ezaguna da arlo soziala erabat argaldu zuelako, eta mugimendu sindikalari zein greba eskubideari eraso egin ziolako. Bizkaiko egoitzen gatazkan Rementeria jaunak denetarik egin du greba eskubidea urratzeko: harro agertu da Eusko Jaurlaritzari gutxieneko zerbitzu gehiago eskatu dizkiolako (baita Lakuak eman ere, zenbait kasutan %100erainokoak). Ausardiaz esan du "adinekoen duintasuna edozein greba eskubideren gainetik dago", eta Aldundiko ikuskaritza zerbitzua erabiliko zuela "pertsonen duintasuna eta hauen jarduera mantendu eta bermatzeko", hau da, grebaren aurka jotzeko.

Duela egun batzuk egoitza batean gertatutakoak ondo agertzen du auzia: Greba beteko gau batez Aldundiko ikuskaritza heldu zen zahar-etxe batera. Bi langile ari ziren 130 egoiliar zaintzen. Ikuskaria oso serio jarri zen, eta hori "onartezina" zela esan zuen. Langileek erantzun zioten, ordea: "zerbitzu hau %100ekoa da, ohikoa". Ikuskaritzaren txostenak aipatuko ote du halako ratioak onartezinak direla? Ziurrenik ez. Diputatu Nagusiaren iritziz adineko jendearen duintasuna soilik urratzen da greba dagoenean, ez Aldundia eta enpresak ados jartzen direnean langile kopurua urriegia izan dadin. Beraz, greba eskubidea urratzen da eta adinekoen arreta izatez eskasegia da. Zer esan liteke horri eransten badiogu bere buruaz baliatzeko gai ez den jende ugari zerbitzurik izateko aukerarik dagoela? Ez al da hau Thatcherren eskuliburua?

Azkenik, Bizkaiko Diputatu Nagusiak ez deritzo ondo kritikak "beti hedabideetan egitea, eta ez mahai batean". Rementeriak badaki hori ez dela egia. Kontrara, Bizkaiko Aldundiak ez dio parte hartzeari aukerarik ematen hainbat gaitan, esaterako zerga-politikan. Egia da ere foru hauteskundeen aurretik ELAk alderdi politikoei proposamen sorta bat bidali ziela, bilera eskatuaz, eta orduan EAJk eta Rementeriak ez zutela hitzordurik eman nahi izan. Bestalde, ELAk ez dio Bizkaiko Aldundiari batzarrik ukatu. Areago, bere alderdiarekin mahaietan harremana dugunean ELAk bere posizioak argudioak emanez azaldu izan ditu, eta horrela egingo du etorkizunean ere. Beraz, Rementeria jauna, nahi duzunean mahai baten inguruan eseri gaitezke. Bada, ordea, aurrez onartu beharreko abiapuntu bat: ELAk artikulu honen hasieran aipatutako gai arriskutsu horietaz hitz egiteko eskubidea duela.

***Mikel Noval,***
***gizarte-politiken arduraduna***

## LABURREAN / BREVES




### • Ertzaintzako prebentzio ordezkarien elkarretaratzea

Azaroaren 14an trafiko-ertzain bat hil zen lanezbehar batean. Goizeko 08:00ak aldera auto-istripua izan zen N-1 errepidean, Irura parean, Gasteizeko norabidean. Hildako ertzaina zirkulazioa zuzentzen ari zela harrapatu zuen beste auto batek. Lan-ezbehar berri hau salatzeko Ertzaintzako prebentzio-ordezkariek elkarretaratzea egin zuten hurrengo egunean Oiartzungo Ertzaintzaren instalazioen aurrean, egun sufritzen duten segurtasun eza salatzeko.

ELA-Ertzaintzaren arduradun Jose Luis Alkainek Lan Osasun eta Prebentzio Arloari egoera larri honen aurrean neurriak hartu ditzala exijitzen dio. "Behingoz esku hartu beharra dauka, gertaturikoa zehatz-mehatz ikertzeko, eta Ertzaintzako langileen segurtasunari buruz duen ardura bere egiteko. Ertzainok sufritzen dugun segurtasun-neurri eza oso larria da. Esaterako, Iruran gertatu zen istripua ekiditeko oinarrizko elementuak –laguntzako bigarren patruila, esaterako– falta dira. Gaur egun ez dugu segurtasun-arloko berariazko protokolorik, batez ere 53 jarraibidea indargabetu izanagatik, han jasotzen baitziren protokoloak. Eta, hau guztia gutxi balitz, ezin dugu ahaztu eguneroko lan-materialaren egoera txarra dela".

### • Firmado el primer Convenio del Ocio Educativo y Animación Socio-cultural de Araba

El 8 de noviembre los sindicatos ELA, LAB, CCOO, ESK y UGT y la patronal ZEHARKA firmaron el primer Convenio Colectivo Provincial de Ocio Educativo y Animación Sociocultural de Araba. Un convenio que sirve para dignificar las condiciones laborales y salariales del conjunto de un sector que abarca a casi 400 trabajadores/as. Sandra Martínez Yerro, responsable de ELA en el sector, detaca que pese a las dificultades estamos ante un buen acuerdo. "No hemos podido negociar todos los artículos que nos hubiese gustado ya que en el convenio estatal hay materias que no son negociables. Pero, a pesar de todo, hemos logrado un muy buen acuerdo. Este convenio nos dota de una herramienta muy importante para dar cohesión al sector, romper con los grandes desequilibrios existentes y caminar en la construcción de un sector de actividad regulado".

### • ELAk Altsasun atxilotutako lagunak askatzea exijitzen du

Azaroaren 14an 8 lagun atxilotu zituzten Altsasun, urriaren 15ean bertako taberna batean gertatutako istiluen harira. ELAk lagun hauek atxilotu izana salatzen du. Atxiloketa hauek eta legedi antiterroristarekin epaituak izateko Auzitegi Nazionalera eraman izana zentzugabekeria da, arbitrarioa. Bultzada politiko bati erantzuten dio. ELAk gazte hauen babesgabetasuna aipatu nahi du, testuinguru honetan atestatuak eta eginbide polizialak balio frogagarria dutelako.

### • La plantilla de Ingemar consigue mantener la planta de Usurbil

La asamblea de trabajadores/as dio por finalizada el 17 de noviembre la huelga, tras cinco meses de lucha. El acuerdo alcanzado consiste en el mantenimiento de una plantilla de 51 personas, la ejecución de un Plan de Viabilidad que garantice la actividad productiva en Usurbil, la aprobación por parte de la junta de accionistas de una ampliación de capital así como la implicación institucional en el proyecto. Esta lucha se convierte en una constatación más de que, ante los intentos de deslocalización de una empresa, la unión, la lucha y el convencimiento se convierten en la clave para cambiar decisiones empresariales y para el mantenimiento de nuestro tejido industrial.

astekaria

## Nagore Eskisabelek aurreratzen duenez, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek mobilizazioak indartuko dituzte hitzarmena desblokeatu eta euren lan-baldintzak duintzeko

# ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA, GAINBEHERAN




Azaroaren 12an Bizkaiko Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek manifestazioa egin zuten Bilboko kaleetan. ELAk sektorean duen arduradun Nagore Eskisabelek mobilizazioaren garrantzia azpimarratzen du, "gainbeheran" doan zerbitzu hau iraultzeko.

**-Zergatik deitu zuen ELAk azaroaren 12ko protesta ekintza? Zein da sektorearen egoera?**

-Gurea desegiten ari diren zerbitzua da, eta horrek arazo larriak eragingo ditu. Batetik ongizate-estatua deitzen duten hori –ñabardura guztiekin, noski– kolokan jartzen duelako, eta, bestetik, bertan dihardugun langileen egoera are eta gehiago prekarizatutako delako.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua iragan mendeko 80. hamarkadan sortu zen. Helburua jende nagusiari eta menpekoei etxean laguntzea zen, egoitza batetara derrigorrez bizi izatera joan beharrik ez izateko. Zerbitzu honen helburua pertsona hauen autonomia eta ongizatea bilatzea da, arreta profesionala eta kalitatezkoa emanez.

Hala ere, uneotan eskubide subjektiboa den zerbitzu hau arrisku larrian dago. Elkarrekin lotuta dauden bi arrazoi aipatuko nituzke: 2012an indarren sartu zen Menpekotasun Legea eta borondate politiko eza. Eta paradoxikoa da gainbehera hau etortzea biztanleria orokorrean zahartzea eta bakardadearen nagusitzea gertatzen ari den honetan. Atera kontuak: gaur Bilbon bizi den lau lagunetik batek 65 urte baina gehiago ditu.

**-Borondate politiko falta salatzen duzu. Zergatik? Zertan ikusten da utzikeria politikoa?**

-Bilboko adibidea jarriko dut, bertan biltzen delako Bizkaiko sektorearen %40a. Udalak zerbitzuan egiten duen gastua eta ordu-kopurua %25 inguru jaitsi da azken urteotan. 2010 urteaz geroztik 3,5 milioi euro gutxiago gastatu dute zerbitzuan; 2010ean 16,4 milioi euro gastatzetik 2015an 12,9 gastatzera. Eta 2008tik hona 150.000 lanordu gutxiago egin dira, 616.540 ordutik 461.110 ordu izatera (2015ean).

Bestalde, epealdi berean erabiltzaileek egiten duten ekarpena bikoiztu da; horrela, 2010ean zerbitzuaren kostuaren %3 izatetik 2015ean %6,8 izatera igaro da; 487.763 mila eurotik –2010– 883.896 euro izatera –2015–.

Hauek Bilboko datuak dira, baina errealitatea berdintsua da zerbitzu hau kudeatzen duten Bizkaiko beste udalerri eta mankomunitateetan.

**-Honek guztiak zein nolako eragina du erabiltzaile eta langileen artean?**

-Erabiltzaileei dagokionez, eragina agerikoa da. Zerbitzuko erabiltzaileen kopurua ez da aldatu azken urteotan, 3.000 inguru dira. Gastuan eta ordu-kopuruan egindako murrizketak, beraz, zerbitzuaren kalitatearen eta maiztasunaren kaltetan joan dira. Izatez, erabiltzaileen %60ak 19 ordu baino gutxiagoko laguntza jasotzen du hilean; bestela esanda, egunean ezta ordubete ere, astelehenetik ostiralera.

Langileon egoerari buruz ere ezer onik ez. Zerbitzuko langileek –470 Bilbon eta 1.500 Bizkaia osoan– dituzten baldintzak gero eta txarragoak dira. Behin-behineko langileen tasa %30eraino igo da; langile bakoitzeko batez besteko kostua %25 jaitsi da –2012an 40.123 euro izatetik 2014an 31.359 izatera pasa da–; lanaldi partzialak ugaldu dira...

**-Manifestazioaren amaieran langileen egoera *#mannequinchallenge* batez aurkeztu zen. Zer adierazi nahi izan zenuten?**

-Mannequin Challenge sarean modan jarri den fenomenoa da. Bideo hauetan parte hartzen duen jendea *izoztuta* ageri da kameraren aurrean, mugitu gabe, manikiak bezala. Iruditzen zaigu honek primeran islatzen duela gure egoera, gure soldatak 2012. urtetik izoztuta daudelako. Urte horretan sinatu zen sektorean oraindik indarrean dirauen hitzarmena. Hitzarmen benetan txarra orduko hura, ez baitu babesten lan-erreformatik eta ez duelako bermatzen aplikazioa.

Langileok orain aski dela esatea erabaki dugu. Mobilizazioekin hasi gara, eta protesta ekintzek jarraipena izango dute datozen asteetan, hitzarmen berriaren negoziazioa desblokeatzeko, eta udalak zein mankomunitateak esku hartzera premiatzeko. Izan ere, gure sektorean gastuak gizarteratu diren bitartean, zerbitzua merkaturatu da.

> *"Las trabajadoras del Servicio de Ayuda a Domicilio estamos hartas de ver como año tras año empeoran nuestras condiciones laborales"*




## "LOS RECORTES EN EL PLAN INVERNAL DE LA DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA PONEN EN PELIGRO NUESTRAS VIDAS"

La Diputación Foral de Gipuzkoa presentó el 10 de noviembre el *Plan de Vialidad Invernal 2016-2017*. Un plan que en opinión de Igor San José, responsable del sector de la construcción en Gipuzkoa, no garantiza la seguridad de quienes realizan las funciones de mantenimiento. "Los recursos humanos que se plantean se reducen casi a la mitad, de los 322 activos planteados el año pasado a los 180 planteados este año. Somos escépticos respecto a los verdaderos intereses de la Diputación: ¿se prioriza realmente la seguridad? ¿se quiere dar continuidad a la precariedad?".

San Jose advierte que ELA no va a aceptar ningún recorte que suponga poner en peligro ninguna vida. "Exigimos que se aplique lo establecido en los pliegos de prescripciones técnicas, el convenio de referencia y las normas de seguridad vial y laboral".

En este sentido, San José recalca que la Diputación, tras ocho meses de huelga, sigue haciendo oídos sordos a las denuncias efectuadas por los y las trabajadoras del sector sobre los protocolos de actuación en el mantenimiento de las carreteras.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus